

Gipuzkoako Klima Asanblada

Proposamena 1.0

Testuingurua

Gero eta nabarmenagoa da herritarrak klima-aldaketaren inguruko erronkei buruzko hausnarketa kolektiboan inplikatu behar direla. Munduan, Klima Asanbladaren formatuak nolabaiteko adostasuna sortu du hartu beharreko neurriei buruzko akordioak sortzeko modu erabilgarri eta eraginkor gisa.

Gipuzkoan, Gipuzkoako Foru Aldundia izan da Klima asanbladan inplikatu den erakunde publikoa, TMeLabek eta Arantzazulabek sustatua, Deliberativaren laguntzarekin (demokrazia deliberatiboko prozesuetan aditua). Hauek dira Foru Aldundian inplikatutako sailak:

- Ahdun Nagusiaren Arloa (Estrategiaren Zuzendaritza Nagusia),
- Gobernantza (Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza Nagusia),
- Ingurumena eta Obra Hidraulikoak (Ingurumena kontaktatzeke)
- Ekonomia sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea (Mendiak eta Natura ingurunea Zuzendaritza Nagusia)

Galdera

Aurreko bileretan aipatu izan dugun bezala, galdera sortzea oso urrats garrantzitsua da; izan ere, proiektuaren helburuak zein izango diren eta prozesua nola planteatuko den zehazten du hein handi batean.

Gipuzkoako Foru Aldunditk ondorengo galderak proposatu ziren hausnarketari ekiteko: zer rol izan dezake landa-eremuak klima-aldaketaren aurrean? Zer egin dezake landa-eremuak klima-aldaketaren aurrean?

Gure ustez, beharrezkoa da alderdi hori berriro lantzea, galdera ez baitago formulatuta «trade-offs» terminoan (gatazka zein den ez da zehazten). Galdera horren alternatibetako bat honako hau izan liteke: zer aldatzeko prest gaude, gizabanako eta gizarte gisa, klima-aldaketa arintzeko? Zeri uko egiteko edo aldatzeko prest gaude, gizabanako eta gizarte gisa, klima-aldaketa arintzeko?

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bi lansaio antolatzea proposatzen dugu, benetan eraginkorra izango den galdera bat adosteko; alegia, hainbat erpin jorratu eta erdiesten zailak diren adostasunak lortzea ahalbidetuko duen galdera zehazteko. Bestela, goian jaso den galderari Gipuzkoako Foru Aldundiak Klima Asanbladaren beharrik gabe erantzun baitizaiokela uste da.

Asanbladaren ezaugarriak

Tokiko, eskualdeko zein Europako esperientzia berrienetan eta nazioarteko adibideetan oinarrituta, lehen planteamendu bat egiteko oinarritzko ezaugarri batzuk proposatzen ditugu hemen:

- 32 parte-hartzaile (5 eta 6 pertsonako 5 mahai) + 32 ordezk
- Bi batzorde abian jartzea, Klima Asanblada hasi baino hilabete batzuk lehenago:
 - Jarraipen batzorde bat: alderdi politikoak eta interes-talde nagusiak bilduko ditu, prozesuaren aniztasun ideologikoaren jarraipena egiteko;
 - Eduki-batzorde bat: parte hartzen duten adituak hautatzeaz arduratuko dena eta asanbladan parte-hartzen duten herritarrei ematen zaien informazioa zainduko dutenak. Adituak Gipuzkoako Foru Aldundiak identifikatu eta gonbidatu ditzazke, beti ere ikuspuntuaren aniztasuna aintzat hartuta.
- Lehenengo zozketa egiteko datu-basea: posta-helbideak (izen-abizenik gabe).
- Estratifikaziorako irizpideak: sexua, adina, landa-/hiri-eremua, hezkuntza-maila, balioen galdera.
- Klima Asanbladaren iraupena: 40 ordu inguru. Gutxienez 3 aste / Saiotik saiora hilabete bateko tartea utzi.
- Bilerak aurrez aurre.
- Hizkuntzak: gaztelania/euskara + beharrezkoak diren beste hizkuntza batzuk ausaz aukeratutako pertsonen arabera (baloratzeko), aldibereko itzulpena eskaini.
- Asanbladaren egoitzak: txandakako sistema jarraitu daiteke Gipuzkoako hainbat lekutan, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Arantzazulaben instalazioak erabiliz.
- Prozesuaren gardentasuna: osoko bilkuraren streaminga eskaini; saiotean partekatu eta sortutako dokumentuak zein bideoak egitasmoaren webgunean zabaldu.

Egutegia (behin-behinekoa)

2022ko urtarrila-uztaila. Prestaketa-fasea.

- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin oinarrien akordioa eta akordio ekonomikoa.
- Foru Aldundia eta bi laborategi sustatzaileen arteko lankidetzak-hitzarmena sinatzea.
- Galdera zehaztu eta adostea.
- Proiektuaren hedapen publikoa; komunikazio-kanpaina eta Asanblada Klimatikoen inguruko jardunaldia antolatzea.
- Prozesuaren diseinua.
- Jarraipen bilerak: inplikaturako erakundearekin aldian behin bilerak egitea diseinua kontrastatzeko, alderdiekin bilerak, etab.
- Eztabaiden dinamizatzaileen eta gainerako hornitzaileen kontratazioa (Logistika, itzulpena, etab.).
- Jarraipen Batzordea eta Edukien Batzordea abian jartzea.
- Asanbladaren edukiak sortzea (Informazio kit-a, webgunea, etab.)
- Asanbladaren inplementaziora gonbidatu aurkezleak eta adituak.
- Dinamizazioaren kodiseinua.
- Zozketa zibikoa egitea.

2022ko iraila-abendua. Klima Asanblada egitea.

- Behin-behineko datak:
 - Urriaren 1ean larunbata eta 2an igandea, goizez (11: 00etan)
 - Azaroaren 5ean larunbata eta 6an igandea, goizez (11: 00etan)
 - Abenduaren 18an larunbata eta 19an igandea, goizez (11: 00etan)
 - Urtarrilaren 21ean larunbata eta 22an igandea, goizez (11: 00etan)
- Asanbladaren diseinua sortzen ari den edukiaren arabera egokituz joatea:
 - Beharrezko edukiak sortzen joatea
 - Adituak identifikatzea eta gonbidatzea
 - Komunikazioa eta hedapena (webgunea denbora errealean elikatzea)

2023ko urtarrila - 2024ko ekaina.

Emaitzen zabalkunde publikoa, gomendioen aplikazioaren ebaluazioa eta jarraipena.

Zereginak eta erantzukizunak

Klima Asanbladaren diseinua eta antolaketa egiteko beharrezkoa da horretan parte hartzen duten eragileen lankidetzak aktibatzea. Zereginak eta erantzukizunak sustatzaile diren eragileen artean banatzeko ondorengo taula proposatzen dugu.

Agentzia aditu eta eragile espezializatuek proiektuaren funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren lanak egingo dituzte; besteak beste: kudeaketa, logistika, dinamizazioa, itzulpenak, brandinga eta diseinu grafikoa, ikus-entzunezko materialen errealizazioa eta hurrengo taulan jasotzen ez den beste edozein zeregin.

Arantzazulab eta TMeLab	Deliberativa*	Gipuzkoako Foru Aldundia (GFA)
<ul style="list-style-type: none"> • Koordinazio orokorra. • Harreman instituzionalak. • Aurrekontuen kudeaketa. • Demokrazia deliberatiboaren eta herritarren batzarraren kontzeptuak zabaltzea ekitaldi publikoetan eta tokiko eragileekin egindako bileretan. • Proiektuaren komunikazioa eta brandinga, webgunearen diseinua eta kudeaketa barne. • Klima Asanbladan inplikaturako eragileentzat materialen ekoizpena (informazio-kita, agendak, etab.). • Webgunea denbora errealean eguneratuz garatzen den guztiaren berri ematea: faseak eta edukiak. • Parte-hartzaileak dinamizatu eta euren parte-hartzea koordinatzeko kontratazioa. • Ekitaldiaren logistika kudeatzeko pertsonen kontratazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> • Aurrekontuaren, zereginen eta erantzukizunen banaketaren zirriborroa. • Proiektu osoa gainbegiratzea. • Galdera definitzeko 2 saio diseinatzea eta antolatzea. • Nazioarteko esperientzien komisarioa, aldez aurretik kontzeptu berritzaileak hedatzeko. • Jarraipen Batzordearen diseinua eta kudeaketa. • Edukien diseinua eta kudeaketa: interes-taldeak mapatzea, edukien batzordea. • Prozesu osoaren diseinu metodologikoa: <ul style="list-style-type: none"> • prozesuaren gobernantza, • zozketa zibikoaren diseinua, • prozesuaren faseak, • dinamizazioa elkarrekin diseinatzea eta gainbegiratzea, • transparentzia bermatu eta kontu ematea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Sail bakoitzeko harremanetarako pertsonak identifikatzea. • Galderaren diseinua egiteko saioetan parte hartzea. • Gonbidapen- eta estratifikazio-gutunaren erantzunak kudeatzeko kontratazioa. • Prozesu osoaren jarraipena egitea, prozesua koordinatzeko lan-saioetan parte hartzea eta prozesua gauzatu ahal izateko baldintzak sortzea. • Sailen arteko eta erakundeen arteko koordinazioa. • Zozketa egitea: datu basearen kudeaketa eta prozesuan parte-hartzeko gonbidapenak bidali. • Biltzeko guneak eskura jartzea eta egokitzea (Arantzazulaben egiten ez diren saio horietarako). • Saioen itzulpenaren kontratazioa. • Proiektua sustatzea eta zabaltzea. • Edukien feedbacka prozesuan zehar, eta egitasmoa amaitu ondoren egindakoaren inguruan kontuak ematea.

*Bi laborategiek proposatzen dugu Deliberativa-ren aholkularitza eta laguntza ekimena aurrera eramateko: <https://deliberativa.org/>

Kontaktuak

Naiara Goia

Arantzazulab

ngoia@arantzazulab.eus

653 748 914

Urko Aiartza

Telesforo Monzon e-lab

urkoaiartza@gmail.com